



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/11/23

Argentinan egiten ari dan frankismoaren biktimen epaiketari, akusazio moduan aurkeztuko eskatu deusie Batzar Nagusiek Aldundiari

Bizkaiko Batzarretako Osoko Bilkureak eskaria egin deutso gaur Foru Aldundiari, erakunde hori akusazio moduan aurkeztu daiten Argentinako jurisdikzinoan gure Lurralde Historikoko frankismoaren biktimei jagokenez martxan jarri dan prozeduran. Agindu hori jasoten dauen arauz besteko proposamenak Euzko Abertzaleak, EH Bildu, Euskal Sozialistak eta Podemos Bizkaia taldeen sinadurea daroa, talde horreek batera aurkeztu dabelako Gernikako Batzarretxean egin dan osoko bilkuran, eta aldeko 45 botogaz eta Bizkaiko Talde Popularraren (3) eta Talde Mistoaren (1) 4 abstentzinoakaz onartu da.

Proposamena aurkeztu daben taldeek gogoratu daben moduan, testuan, “egia, justizia eta ordaina” eskatzen dira, 1936ko altxamendu militarren eta diktadura frankistaren biktimentzat, sinatzaileen esanetan hori guztia “zorretan” dagolako oraindino. Lau taldeek eskaria egiten deusie Aldundiari, Buenos Aireseko 1 zenbakiko epaitegian zabalik dagon 4.591/10 kereileagaz bat egin daian, Frankismoaren Krimenen kontrako Euskal Plataformak eta oroimenaren aldeko beste alkarte batzuk behin baino gehiagotan eskatu daben moduan.

Batzarraren agindua, Foru Aldundiak, “hori egiterik dagola deritxanean” Espainiako Estaduko epaitegietan akuzino judizialak abiarazteko bultzadea da, “diktadura frankistek gure Lurralde Historikoan gizateriaren aurka egindako krimenakaitik egon daitezkan erantzukizun penalak zein beste edozein eratakoak argitzeko”.

Gainera, osoko bilkurak, prozedura penalarik atxikitu dakiozan beharrezko baliabideak, “frankismoaren biktimen jakinarazpen, lekukotasun eta froga oro”, jarri daizala eskatzen deutso Bizkaiko Foru Aldundiari, gure Lurralde Historikoko “frankismoaren zapalkuntza guztien esanahirik zabalena eta osatuena egitearren”. Eginbehar horreen artean, errejimene faxistak zigortutako Aldundiko behargin guztiak “birgaitzeko” agintzen jako Aldundiari. Jon Andoni Atutxa jeltzaleak, gerra amaitu ostean Francoren errejimeneak fusilau ebazan Luis Belaza miñoia edo Luis Uribe liburuzaina gogoratu ditu.

Holan, Bizkaiko Batzarrek bat egin dabe hainbat erakundegaz, diktadura frankistaren garaian (1936-1975) egindako “gizateriaren kontrako” krimenak epaitzeko María Servini epaileak Argentinan zabaldua daukan kausari jagokonez jurisdikzino unibertsala bultzatuz. Serviniren oinarria, 1977ko amnistia ezin jakela genozidio delituei aplikau da, gaur Batzar Nagusietan gogoratu dan moduan.

Talde Misto eta Alderdi Popularra ekimenaren kontra agertu dira, ez dauela ondorioz izango esanda, errepresino frankistaren arduradunak hilda dagozalako eta, adituek esaten dabenez, ez dauelako ibilpide juridikorik izango. Gainera, horrek eragingo dauen gauza bakarra Foru Administrazioari “beharrezkoak ez diran” gastuak ekartea izango da. Javier Ruiz PPko bozeroaleak, “errepresino instituzionalizauko eta indarkeria estrukturalako” 40 urteen gaitzespena “argi eta garbi” adierazo ostean, 1977ko amnistiaren legearen “adiskidetze



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

izpiritua” gogoratu gura izan dau, izpiritu hori “nazionalistek, sozialistek eta komunistek” bultzau ebela azpimarratuz.

16 BILERA URTEBETEAN HERRITARREN ESKAERETAKO BATZORDEAN

Bizkaiko Batzar Nagusietako Eskaeretakako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetakako Batzordeak “37 eskaera” landu ditu guztira legealdiaren hasieran martxan jarri zantetik joan dan garagarriaren 30era arte. Horreetatik “24” Batzarretako taldeen ekimen bilakau dira, adierazpenak, txostenak edo agerraldiak, María Presa presidenteak emondako datuek erakusten dabenez. Presidenteak organo horren jardueraren lehenengo urtearen jarduera-txostena aurkeztu dau osoko bilkuraren aurrean. Denpora tarte horretan, erakundea “17 bider” alkartu da.

Presak adierazo dauenez, Batzordearen lehenengo urtea izan da, “eta hasierak ez dira inoiz errazak izaten”. Holan, tresna hori martxan jartea ez dala “erraza” izan esan dau, “partaideen, pertsonen eta taldeen, heterogeneotasunetik” sortutako “berezitasunak” dirala eta. Batzordeko presidenteak esan dauenez, batzordearen funtzionamentua “hobetzeko beharrea jarraituko dau”, “herritarren zerbitzura arituko dan tresna erabilgarria” izan daiten.

Batzarretako taldeetatik, Ainara Aretxabaleta EAJ-PNVko ordezkariak azpimarratu dauenez, Batzorde hori “bizkaitarrak entzuteko tresnea da” eta funtzionamentuaren “lehenengo pausuak dirala kontuan izanda, nahiko emaitza ona” euki dau. Dana dala, “talde guztien jarrereagaz eta laguntzeagaz hobekuntzak lortu daitezkeza” onartu dau.

Meritxell Elgezabal EH Bilduko bozeroaleak esan dauenez, Batzordeak hobetu beharreko alderdiak ditu, eta herritarren partaidetzari “merezi dauen bultzadea” emotea defendidu dau, izan be, “zenbat eta eragile edo herritar gehiagok parte hartu, askoz hobeto”, esan dau. Balorazino politikorik egin ezin izana kritikau dau.

Joaquín Colmenero PSEko batzarkideak azpimarratu dauenez, herritarren partaidetzaren balantzea “positiboa eta anitza da, planteautako gaietan”, eta, hori dala eta, legealdi honetan martxan jarri dan herritarrentzako batzordeak “osasun ona dauka”, eta “oso tresna erabilgarria” bilakatu da.

Neskutz Rodríguez Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak, bere aldetik, Batzordeak “moeta guztietako proposamenak, kexak eta erreklamazioak” jaso dituala azpimarratu dau baina, “batez be, eguneroko bizimoduan eragina daukien erabagi politikoetan lankidetzaz, koordinazio eta partaidetza handiagoa eskatzen daberen proposamenak egin dira”. Batzorde hori “funtsezkoa” dala azpimarratu ostean, “oraindino hobetu beharreko alderdiak dituala” adierazo dau, difusinoari jagokona, besteak beste.

Eduardo Andrés PPko batzarkideak Batzorde horren balantze “positiboa” balorau dau, baina herritarrek dituen itxaropenak “batzuetan, erakunde horrek benetan dituan eskumenak baino handiagoak” dirala esan dau. Gainera, bere esanetan, Batzordean egin dan beharrak erakutsi dauenez herritarren artean “oso gitxi ezagutzen dira” Batzar Nagusiak eta horreen eskumenak.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko batzarkidearen eretziz “benetan positiboa” izan da Batzorde horren jardueraren lehenengo urtea, holan batzarkideek hobeto ezagutu ahal izan dituelako “gizarteak hautematen dituan eta guri bideratzen deuskuezan arazoak”, eta baita herritarrek



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“euren proposamenak batzarrak moduko organo batean planteetan” ikasten dabelako. Azpimarratu dauenez, horrek guztiak Batzar Nagusien “eraginkortasuna hobetzen” eta, beraz, “Bizkaiko gobernua hobetzen”, laguntzen dau.

EZEZKOA KOPAKO FINALA SAN MAMESEN JOKATZEARI

Ohiko osoko bilkurak, Gerediagan egindako azkeneko kontroleko osokoan landutako hainbat gai jaso ditu barriro. Holan, Bizkaiko Talde Popularrak, 2017ko Errege Kopako Finala San Mamesen jokatzeari defendidu dau barriro Foru Gobernuaren aurrean aurkeztutako itaun batetik sortutako mozino baten bitartez. EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeak “joko” horretatik kanpo jarri dira, eta euren indarrak batu ditue, Euskal Sozialisten (PSE-EE) eta Talde Mistoaren aldeko botoa jaso dauen popularren ekimena atzera botateko, Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldea abstenidu egin dalako.

EZEZKOA EKINTZAILTZARI LAGUNTZEKO FORU ARAUARI

Beste alde batetik, PP taldeak, arauz besteko proposamen bat ekarri dau Batzar Nagusietara, Bizkaian ekintzailtzari laguntzeko Foru Araua egin daiala eskatzeko Aldundiari. Popularren berbetan, Bizkaiko lurraldeak Estaduko ekintzailtza tasa “txikienetakoa” dauka, “betidanik” ekintzaileen lurraldea izan dan arren. Proposamenak Talde Mistoaren aldeko botoa baino ez dau lortu. EH Bildu abstenidu egin da.

Enpresa barrien sorkuntzari eta Estaduko beste lurraldeakaz alderatuta Bizkaian dagon autonomo kopuruari buruzko zifren dantzaren ostean, EAJ-PNV, Podemos Bizkaia eta PSE-EE taldeek ezezkoa emon deutsie PP taldearen proposamenari, euren esanetan badagolako Autonomia mailako arauzko esparrua horretarako, ekintzaileei laguntzeko Legebiltzarraren 6/2012 Legea, hain zuzen be. Foru Gobernua eusten daben talde biek, hiru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako erakundeen arteko 2013-2016 plana be aitatu dabe. Plan horretan “ekintzailtzaren ikuspegi integrala” eskintzen da.

EGOITZEN KONTZERTAZINO BARRIA

Horren ostean, EH Bilduk eskaria egin dau, Foru Aldundiak, mendekotasuna daukien pertsonen egoitzetan plazak ituntzearen gaineko dokumentuak bialdu deiezan Batzarretako taldeei, Zentroen Batzordeak onetsi aurretik. EAJ-PNV eta PSE-EE proposamenaren kontra agertu dira, euren eretziz proposamena Bizkaiko Batzar Nagusien “eskumenetatik kanpo geratzen dalako”. Mozinoa ez da onartu, aldeko 17 boto (EH Bildu, Podemos eta Mistoa), kontrako 29 (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta 3 abstentzino (PP) izan ditualako.

OSOKO BILKURAK EZ DAU ONARTU ALDUNDIAK BERE GAIN HARTZEA UDALKUTXAREN LIKIDAZINO NEGATIBOAREN %50

Beste mozino batean, Udalkutxaren likidazinoa negatiboa bada, likidazino horren %50 Aldundiak bere gain hartzea eskatu dau koalizino abertzaleak, une honetan hori udalerriek hartu behar dabelako euren gain, “partekatutako arriskuan” oinarrituta dagon finantzaketarako euskal eredia kontuan izanda. Hori izan da, hain zuzen be, Batzarretako EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

ekimenari ezezkoa emoteko erabili daben errazoa, izan be, euren esanetan, diru-bilketaren jatsierak Euskadiko administrazio guztietan izango dau eragina, eta ez udaletan bakarrik. “Gauzak ondo doazanean eta diru gehiago batzen danean, gehiago egoten da danontzat, eta alderantziz gertetan danean, bardin”, esan dau María Presa jeltzaleak. Batzarretako gainerako taldeak –Podemos, PP eta Talde Mistoa– abstenidu egin dira.

EH Bilduk kritikau egin dau Aldundiak diru-bilketen aurreikuspenetan egin dauen “akatsak” “eragin handiagoa” daukala udaletan, horreen aurrekontuen “%60” Udalkutxaren funtsetan oinarritzen dalako. EAJ-PNVk guzurtau egin dau aurreikuspen hori Aldundiak egiten dauenik. “Finantzen Euskal Kontseiluan adosten da”, azaldu dau Presak, eta Aldundiak, aurtan, Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluaren bitartez diru-bilketaren bilakaeraren panoramea “lau bider” jakinarazo dauela gogoratu dau. Dana dala, aurreikuspenak “%95ean” beteko dirala azpimarratu dau.

PARTAIDETZAN OINARRITUTAKO PROZESUA HONDAKINEN PLAN BARRIA EGITEKO

Podemos Bizkaia taldeak, bere aldetik, hondakinen plan barria egiteko partaidetzan oinarritutako prozesua zabaltzea eskatu dau, une honetan indarrean dagona aurtan amaitzen dalako. Aldundiak, une honetan indarrean dagon Bizkaiko Uri Hondakinen Prebentzinorako II. Planak “adostutako luzapena” izango dauela iragarri dau, Irene Edesa jeltzaleak gogoratu dauen moduan. Bizkaiko Batzarrek ez dabe ekimena onartu, EH Bilduren aldeko botoak baino ez ditualako jaso. Gainerako taldeek kontrako botoa emon dabe.

AGURREZ BETETAKO OSOKOA TALDE SOZIALISTAN

Osoko Bilkuran behin eta barriro adierazo dira Alexia Casteleri eta Joaquín Colmenerori zuzendutako agurreko berbak. Euskal Sozialistak taldeko ordezkari biek Batzar Nagusietako euren jarduera itzi egingo dabela iragarri dabe gaur. Batzarretako beharra 2007an hasi eban Sestaoko batzarkide andreak bere hirugarren legealdian itziko ditu Bizkaiko Batzarrak, Eusko Legebiltzarrean bere eserlekua hartzeko. Colmenerok, barriz, bere batzarkide jarduera itziko dau 13 urtez aritu eta gero, 2003an hasi zan eta. Euren lekuak Josu Montalbánek eta Ekain Ricok beteko ditue, hurrenez hurren. Batzarkide barri biak Enkarterriko eta Bilboko hautagai sozialistak izan ziran azkeneko foru hauteskundeetan.

Castelok eta Colmenerok azkeneko aldiz egin dabe berba Batzar Nagusietako osokoaren aurrean, eta euren esku-hartzeez baliata Batzarretako kideengandik agurtu dira, eta Ana Otadui Batzar Nagusietako presidentek euren beharra eskertu deutse.

Joaquín Colmenero batzarkide sozialistak Batzarretako jarduera itziko dau, “baina ez jarduera politikoa”, agurrean zehaztu dauenez. Batzarretako presidentek “zerbitzu publikoaren alde eta Batzar honeetan Bizkaiko herritarren interesak defendiduten” emon dituan “urte guztiak” azpimarratu ditu.

Alexia Castelok, bere aldetik, bere beharra Eusko Legebiltzarrean egingo dau hemendik aurrera. Otadui batzarkide sozialistaren beharra be eskertu dau, eta emakume “ausarta, behargina eta hizlari bikaina” dala esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRESIDENTEAREN ADIERAZPENA

Bere hasierako esku-hartzean, Ana Otadui Batzar Nagusietako presidentea, barikuan, zemendiaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazinoarteko Eguna dala gogoratu dau, eta “gizarteak emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzinoan eta burrukan laguntzea” sustetako konpromisoa adierazo dau, bardintasunerako politikak eta “eraso matxisten” kontrako protokoloak sustauz eta “gizartearen erantzuna” bultzatuz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
23/11/2016

Las Juntas Generales instan a la Diputación a presentarse en Argentina como acusación en el juicio de las víctimas del franquismo

El pleno de Juntas Generales de Bizkaia ha instado hoy a la Diputación foral a que se persone como acusación en el procedimiento incoado en la jurisdicción argentina para defender los derechos de las víctimas vizcaínas del franquismo. La proposición no de norma que incluye este mandato lleva la firma de los grupos junteros Nacionalistas Vascos, EH Bildu, Socialistas Vascos y Podemos Bizkaia, que la han presentado conjuntamente en la sesión plenaria celebrada en la Casa de Juntas de Gernika, consiguiendo que salga adelante por 45 votos a favor y solo cuatro abstenciones, las que corresponden a los representantes del grupo Popular Vizcaíno y Mixto.

Como han recordado los proponentes, en el texto se reclama “verdad, justicia y reparación” para las personas víctimas del alzamiento militar de 1936, algo que todavía “está en deuda”, según los firmantes. Los cuatro grupos piden a la Diputación que se sume a la querrela 4591/10 abierta en el juzgado nº 1 de Buenos Aires, como viene pidiendo la Plataforma Vasca contra los Crímenes del Franquismo y otras asociaciones memorialistas.

El mandato parlamentario supone un empujón para que la Diputación Foral, “en el momento en que estime posible”, inicie también acciones judiciales en los tribunales del Estado español “para el esclarecimiento de responsabilidades penales o del tipo que procedan por crímenes contra la humanidad cometidos por la dictadura franquista en nuestro territorio histórico”.

Además, el pleno le pide al Gobierno foral que facilite los medios oportunos para que se adjunte al procedimiento penal “toda la comunicación, testimonio y prueba” de víctimas, con el objeto de que se elabore el censo “más amplio y completo posible de todas las opresiones del franquismo”. Entre estos deberes, encomienda al Ejecutivo a que proceda a la “rehabilitación” de aquellos trabajadores y trabajadoras de la Diputación represaliados por el régimen fascista. El jeltzale Jon Andoni Atutxa ha recordado los casos del miñón Luis Belaza o el bibliotecario Luis Uribe, fusilados por el régimen de Franco acabada la guerra.

El Parlamento de Bizkaia se une así a numerosas instituciones que apoyan la jurisdicción universal en referencia a la causa abierta por la juez María Servini, que instruye en Argentina el caso por los crímenes de “lesa humanidad” cometidos durante la dictadura franquista (1936-1975). Servini parte de la base de que la Ley de Amnistía de 1977 no es aplicable a delitos de genocidio, como se ha recordado en la Cámara vizcaína.

Los grupos Mixto y PP han puesto en duda la eficacia de la iniciativa por considerar que la misma no tendrá efecto al estar fallecidos los responsables de la represión franquista y al no tener recorrido jurídico, recogiendo la opinión de “expertos” jurídicos. Además, sólo conllevará gastos “innecesarios” a la Administración foral. El portavoz del PP, Javier Ruiz, tras “dejar claro” su condena a 40 años de “represión institucionalizada y violencia estructural”, ha apelado



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

al “espíritu de la reconciliación” que supuso la Ley de Amnistía de 1977, fomentada “precisamente” por “nacionalistas, socialistas y comunistas”, ha recordado.

16 REUNIONES EN UN AÑO DE LA COMISIÓN DE PETICIONES CIUDADANAS

La Comisión de Peticiones y Relaciones Ciudadanas de las Juntas Generales de Bizkaia ha tratado un total de "37 peticiones" ciudadanas desde su puesta en marcha con el inicio de la legislatura hasta el pasado 30 de julio, de las que “24” han derivado en iniciativas de los grupos junteros, entre "declaraciones, informes o comparencias", según los datos aportados por su presidenta, María Presa, quien ha presentado ante el pleno de la Cámara foral, el informe de actividad del primer año de actividad de este órgano que se ha reunido en “17 ocasiones”.

Presa ha destacado que este ha sido el primer año de funcionamiento de la Comisión "y los comienzos nunca son fáciles". En este sentido, ha apuntado que poner en funcionamiento esta herramienta no ha sido "sencillo" por las "peculiaridades" derivadas de la "heterogeneidad de los participantes, tanto de las personas como de los colectivos". La presidenta de la Comisión ha asegurado que se seguirá "trabajando para mejorar" su funcionamiento de manera que sea "una herramienta útil al servicio de la ciudadanía".

Desde los grupos junteros, la representante del PNV Ainara Aretxabaleta ha destacado que esta Comisión "sirve como herramienta para escuchar a los vizcaínos" y ha tenido "un resultado bastante digno para ser los primeros pasos" de su funcionamiento, si bien ha admitido que "se pueden hacer mejoras" con la "predisposición y colaboración de todos los grupos".

La apoderada de EH Bildu Meritxell Elgezabal ha señalado que la Comisión tiene aspectos que mejorar y ha defendido que se dé a la participación ciudadana "el impulso que merece" porque "cuantos más agentes o ciudadanos tomen parte, mucho mejor". Ha criticado, sin embargo, que no se puedan hacer valoraciones políticas.

El juntero del PSE Joaquín Colmenero ha subrayado que el balance de participación de los ciudadanos es "positivo y variado en los temas planteados", por lo que la comisión ciudadana estrenada en esta Legislatura, "goza de buena salud" y se ha convertido en "un instrumento muy útil".

Por su parte, la portavoz de Podemos Bizkaia, Neskutz Rodríguez, ha subrayado que la Comisión ha recibido "propuestas, quejas y reclamaciones de todo tipo, pero, sobre todo, han realizado propuestas pidiendo mayor colaboración, coordinación y participación en decisiones políticas que afectan a la vida diaria". Tras subrayar que esta Comisión es "fundamental", ha señalado que aún "tiene aspectos que mejorar" como el relativo a su difusión.

El apoderado del PP Eduardo Andrés ha valorado el "positivo" balance de esta Comisión, si bien ha advertido de que las expectativas de los ciudadanos "a veces son mayores que las competencias realmente tiene" este órgano. Asimismo, ha remarcado que el trabajo desarrollado en la Comisión ha permitido comprobar que existe "un gran desconocimiento" entre la ciudadanía sobre las Juntas Generales y sus competencias.

Por su parte, el apoderado del Grupo Mixto Arturo Aldecoa ha considerado "realmente positivo" el balance del primer año de actividad de esta Comisión ya que ha servido para que los junteros



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

conozcan mejor "las problemáticas que percibe la sociedad y nos traslada" y también para que los ciudadanos aprendan a "plantear sus propuestas en un órgano parlamentario". Todo ello, ha remarcado, contribuye a "mejorar la eficacia" de las Juntas Generales y, por tanto, "a mejorar el gobierno de Bizkaia".

RECHAZO A LA FINAL DE COPA EN SAN MAMES

El pleno ordinario ha retomado algunos asuntos tratados en la última sesión de control celebrada en Gerediaga. Así, el grupo Popular Vizcaíno ha defendido nuevamente a través de una moción, nacida de una interpelación al Gobierno foral, que San Mames se convierta en sede de la final de la Copa del Rey en 2017. Fuera de este "juego" se han situado los grupos de EH Bildu y Podemos Bizkaia que ha sumado fuerzas para tumbar la iniciativa popular que ha contado con el apoyo de Socialistas Vascos (PSE-EE) y Mixto, mientras que el grupo Nacionalistas Vascos (PNV) se ha abstenido.

NO A UNA NORMA FORAL DE APOYO AL EMPRENDIZAJE

Por otra parte, el PP traía a la Cámara vizcaína una proposición no de norma que instaba a la Diputación a elaborar una Norma Foral de apoyo al emprendimiento en Bizkaia. Según los populares, el territorio vizcaíno cuenta ahora con una de las tasas de emprendimiento "más bajas" del Estado, cuando Bizkaia "siempre" ha sido tierra de personas emprendedoras. La propuesta solo ha contado con el apoyo del grupo Mixto. Por su parte, EH Bildu se ha abstenido.

Tras un baile de cifras entorno a la creación de nuevas empresas y en referencia al número de autónomos existentes en Bizkaia en comparación con otros territorios del Estado, los grupos junteros de PNV, Podemos Bizkaia y PSE-EE han rechazado la propuesta del PP al entender que ya existe un marco normativo autonómico, como la Ley 16/2012 del Parlamento vasco de apoyo a personas emprendedoras. Los dos grupos que sustentan al Gobierno foral se han referido también al plan interinstitucional 2013-2016 puesto en marcha por las tres diputaciones y el Gobierno vasco en donde se ofrece una "visión integral del emprendimiento".

NUEVA CONCERTACIÓN DE RESIDENCIAS

A continuación, EH Bildu ha reclamado que la Diputación remitiese a los grupos junteros el documento sobre la concertación de plazas en las residencias de personas dependientes para el año próximo, antes de que sea aprobada por la Comisión de Centros. La iniciativa ha sido rechazada por PNV y PSE-EE que han visto que la propuesta sobre incidir en el pliego que debe preparar el Ejecutivo foral "se escapa del ámbito competencial" de las Juntas Generales de Bizkaia. La moción ha decaído por 17 votos a favor (EH Bildu, Podemos y Mixto), 29 votos en contra (PNV y PSE-EE) y 3 abstenciones (PP).

EL PLENO RECHAZA QUE LA DIPUTACIÓN SE HAGA CARGO DEL 50% DE LA LIQUIDACIÓN NEGATIVA DE UDALKUTXA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En otra moción, la coalición abertzale ha defendido que la Diputación asuma a partir del año próximo el 50% de la liquidación negativa de Udalkutxa que ahora corresponde asumir a los municipios en base al modelo vasco de financiación basado en el “riesgo compartido”. Precisamente, este argumento es el que han utilizado los grupos junteros PNV y PSE-EE para rechazar la iniciativa, ya que, según ellos, la bajada de la recaudación afectará a todas las administraciones vascas, no sólo a los ayuntamientos. “Cuando las cosas van bien y se recauda más, hay más para todos, y al revés también”, ha dicho la jeltzale María Presa. El resto de grupos junteros –Podemos, PP y Mixto- se ha abstenido.

EH Bildu ha criticado que el “error” en las previsiones recaudatorias de la Diputación afecta “en mayor medida” a los ayuntamientos que basan el “60%” de sus presupuestos de los fondos de Udalkutxa. El PNV ha negado que la Diputación haga esta previsión. “Se acuerda en el Consejo Vasco de Finanzas” ha explicado la jeltzale María Presa, quien ha recordado que la Diputación ha informado “hasta en cuatro ocasiones” este año del panorama evolutivo de la recaudación a través del Consejo Territorial de Finanzas de Bizkaia y que estas previsiones se cumplirán “no obstante” en un “95%”.

PROCESO PARTICIPATIVO PARA UN NUEVO PLAN DE RESIDUOS

Por su parte, desde Podemos Bizkaia han solicitado la apertura de un proceso participativo de cara a elaborar el nuevo plan de residuos, ya que el actual concluye este año. La Diputación ha anunciado una “prórroga consensuada” del vigente II Plan de Prevención de Residuos Urbanos de Bizkaia, como ha recordado la jeltzale Irene Edesa. La iniciativa ha sido desestimada por la Cámara vizcaína al recibir únicamente el apoyo de EH Bildu, mientras el resto de grupos ha votado en contra.

PLENO DE DESPEDIDAS EN EL GRUPO SOCIALISTA

Durante todo el pleno se han repetido las palabras de despedida dirigidas a Alexia Castelo y Joaquín Colmenero, representantes del grupo juntero Socialistas Vascos que hoy han recordado que dejan su actividad parlamentaria en las Juntas Generales. La representante sestaoarra, que inició su actividad en 2007, deja la Cámara vizcaína en su tercera legislatura para ocupar asiento en el Parlamento vasco. Por su parte, Colmenero abandona el puesto de apoderado después de 13 años de trabajo ya que su etapa en el Legislativo vizcaíno comenzó en el año 2003. Sus sitios será ocupados por Josu Montalbán y Ekain Rico, respectivamente, candidatos socialistas en las listas electorales de las pasadas elecciones forales por las circunscripciones de Encartaciones y Bilbao.

Castelo y Colmenero han intervenido por última vez ante el pleno de las Juntas Generales, donde han aprovechado sus intervenciones para despedirse de sus compañeros en la Cámara y han recibido el agradecimiento por su labor de la presidenta de las Juntas Generales, Ana Otadui.

El apoderado socialista Joaquín Colmenero dejará su actividad en la Cámara, “pero no la actividad política”, según ha precisado en su despedida. La presidenta de la Cámara ha destacado “todos los años” que ha dedicado al “servicio público y a trabajar en esta Cámara para defender los intereses de los ciudadanos vizcaínos”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Por su parte, Alexia Castelo desempeñará, a partir de ahora, su labor en el Parlamento vasco. Otadui también ha agradecido su labor a la juntera socialista, a la que ha calificado como una mujer "valiente, trabajadora y buena oradora".

DECLARACIÓN PRESIDENCIAL

En su intervención inicial, la presidenta de Juntas Generales, Ana Otadui, ha recordado la celebración el viernes 25 de noviembre del Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres y ha expresado el compromiso de promover que "la sociedad contribuya a la prevención y el combate de la violencia contra las mujeres" mediante el impulso de políticas de igualdad y de protocolos contra las "agresiones machistas", así como la promoción de "la respuesta social".